

5. FINAL-LAURDENA. ZARAUTZ
Aurkezlea: Saroi Jauregi

8KO NAGUSIA

Iker Zubeldia eta Joxe Munduate

Kamioi-gidariak zarete, eta 5 hilabete daramatzazue lanik gabe. Astero bezala, kamioia garbitzen egin duzue topo.

Unai Agirre eta Oihane Perea

Asteko erosketa egitera joan zarete supermerkatara, eta han ikusi duzue gaztetxo koadrila bat orga goraino edari alkoholdunez beteta.

Iratxe Ibarra eta Xabier Silveira

Goizeko ordu biak dira, eta taberna bateko komuneko ilaran zaudete biok. Azken 20 minutuetan ez da aterik ireki.

8KO TXIKIA

Joxe Munduate eta Unai Agirre

Unaik hala nahita, kanpinera joan zarete oporretara. Ekaitzak zuen kanpin-denda eraman du, eta kanpineko komunean zaudete busti-busti eginda.

Xabier Silveira eta Iker Zubeldia

Iker arrantzale berria eta Xabier zaharra zarete. Ikerrek oraintxe harrapatu du bere lehen arraina kanaberarekin, baina ez da uretatik ateratzeko gauza.

Oihane Perea eta Iratxe Ibarra

Autoko gurpila zulatu zaizu, Oihane eta Iratxe gelditu zaizu laguntzeko. Ordubete darama Iratxek zure gurpila aldatu ezinik, Oihane.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Iker Zubeldia

Zarautzek zergatik du / herri pijo fama
Pukas eta Billabong / soinean jantzita
Zuk ere badaukazu / pijoan itxura

Joxe Munduate

Edari oso ona / dugu txakolina
Edan behar omen da / behar den neurrian
Sagardoa egiten / hasi dira jada

Unai Agirre

Egaña menderatzen / erraza ez dago
Bosgarrenaren bila / omen dihoala
Zu izango al zara / kentzeko kapaza

Oihane Perea

Udan turistak datoz / Zarautza oldeka
Oporretako etxerik / ba al daukazu hemen?
Ta bertako gazteak / maiz etxerik gabe

Iratxe Ibarra

Krisian gaude baina/ prezioak gora
Bankuak hartzeko prest / ta emateko ez
Diruak ez du orain / lehengo txintxin hotsa

Xabier Silveira

Kafea edo tila / saioan aurretik
Osasungarriena / ura omen dugu
Ta saioan ondoren / ze sartzen da ongi?

10EKO TXIKIA

Joxe Munduate eta Iratxe Ibarra

Amiantoagatik zuen aita hil berri da. Zuk Joxe salaketa jarri nahi duzu; Iratxek ez du saltsa horretan sartu nahi.

Iker Zubeldia eta Oihane Perea

45 urteko bikotea zarete, hiru seme-alabaren gurasoak. Oihane haurdun geratu da, eta abortatu egin nahi du.

Unai Agirre eta Xabier Silveira

Ordubete behar duzue lanera joateko. Errepide berri bat egiteko proiektua aurrera ateraz gero, 15 minutuan iritsiko zinatekete. Xabier proiektu horren kontra dago.



KARTZELA

Telefona jo eta jo ari da, baina ez duzu hartu nahi.

Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.